

Brasilgo Legebiltzarreko presidentea, Eduardo Cunha, ebanjelista da. Eskuin muturrekoa da, fededun su-tsua. Bortxaketa baten ondotik haurdun gelditu direnei abortua zailtzeko lege proiektua aurkeztu berri du; bortxaketa azterketa mediku baten bitartez frogatu beharko dute. Nazio Batuen Erakundearen arabera, Sao Paulon, biztanle gehien dituen Brasilgo hirian, 15 segundoro emakume bat erasotzen dute. Hurrengo eguneko pilularen salmenta ere galarazi nahi du Cunhak, beste neurri atzerakoi batzuen artean. Emakumeen eskubideen defentsan atzerapauso izugarria dela salatu dute egunotan Brasilen bertan. «Nahiz eta Brasilgo presidentea emakumea izan, legeak egiten dituztenak kontserbadoreak dira, gehienak gizonak eta ebanjelikoak», salatu du Eliene Juffa Filosofiako irakasleak.

Dominikar Errepublikan, Esperancita umearen heriotza oraindik ere herritarren gogoan dago. 2012ko uztailaren 2an, bere ama ospitalera joan zen, 16 urte zituen neskatoarekin. Leuzemia diagnostikatu zioten, baina zazpi asteko haurdunaldia ere. Herrialdean abortua guztiz debekatuta zegoen une horretan, egoera dena delakoa izanik ere. Kimioterapia ezinbestekoa zuen arren, medikuek ez zioten eman haurdunaldiarekin bateragarria ez zelako. Mobilizazio askoren ostean, medikuek iritziz aldatu behar izan zuten. Beranduegi zen; abuztuaren 17an hil zen neskatoa.

«Fundamentalista erlijiosoek Esperancitak abortatzea ekidin zuten. Hondurasen, larrialdizko kontrazepzio pilularen salmenta debekatu dute. Brasilen bezala, Hondurasen ere ebanjelistek gero eta indar handiagoa dute», azaldu berri du Donostian Aide Garcia ekintzaile mexikarrak.

Emakume Katolikoak Erabakitzeko Eskubidearen Alde deritzan erakundeko ordezkaria da Mexikon. Kanpo harremanen arduraduna da. Fededunak izanik, ikuspuntu laiko, feminista, etiko eta katolikoa duten gizo-



AIDE GARCIA

EMAKUME KATOLIKOAK

Aide Garcia mexikarra da eta Emakume Katolikoak Erabakitzeko Eskubidearen

Alde erakundeko kidea da.

Fundamentalismoen inguruan

aritu da Donostian.

Ainara Lertxundi

«Fededunak entzun
eta emakumeon
erabakitze
eskubidea aitortuko
duen Eliza nahi
dugu emakume
katolikook»

nek eta emakumeek osatzen dute 1994ko abuztuaren 3an sortu zen taldea. Emakumeen eta gazteen giza eskubideen defentsa –sexu eta ugaltze eskubideak batez ere– dute jomuga.

Pasa den astean, Aide Garciak fundamentalismo erlijiosoaren gaineko hitzaldia eman zuen Donostian, Medicus Mundi gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako jardunaldietan. Hitzketaldiaren hasiera-hasieratik marra lodi bat marraztu nahi izan zuen Eliza katolikoaren hierarkiaren eta fededunen artean. «Elizaren parte guztiok gara. Baina, hierarkia, izatez oso kontserbadorea, beste esfera batean dago, fededunok sentitu eta pentsatzen dugunetik urrun. Sexualitatea moraletik soilik aztertzen du; familia eredu tradizionala bakarrik defendatzen du; eskoletan sexualitatea irakastearen kontra dago; ez du onartzen emakumeok erabakitze eskubidea dugunik; liburu sakratuen hitzez hitzeko irakurketa egiten du eta tradizioari hertsiki lotuta jarraitzen du. Patriarkatua Elizaren hierarkiaren agendaren oinarri da», nabarmendu zuen.

«1995ean Beijingeko Konferentzia ospatu zen. Emakumeen eskubideak arlo guztietan aitortzen zituen adierazpen luzea onartu zen bertan. Urte berean, Juan Pablo II.a aita santuak ‘Evangelium Vitae’ entziklika aurkeztu zuen. Ekintza politikorako gida bat zen funtsean, bizi-tzaren defentsan oinarritu eta familia-plangintza eta abortua bezalako gaiak gogor gaitzesten zituen. Erlijioarekin zerikusia zuten gaiak gobernuz kanpoko erakundearen agendan sartu ziren, eta Elizak botere politikoe-kin aliantzak egin eta giza eskubideen diskurtsoaren jabe egin zen. Eguneko 24 orduetan eliza desberdinen esku dauden telebista kateak ikus ditzakegu egun Mexikon. Etengabe botatzen ari dira beraien diskurtsoa; eremu publikoa bere egin dute. Esaterako, ebanjelikoek Mexiko-ko Legebiltzarrean ordezkartitza bat dute, eta, Mexiko estatu laikoa izan arren, arazoaren 4an, gotzainek Senatuan esku hartu

zuten. Bertan izan ziren Frantzisko Aita Santuaren 'Laudato si' entziklika aurkezteko. Hori aurrekari bat da. Orain arte ez zen inoiz horrelakorik gertatu. Orain, baina, Mexiko estatu laikoa izanik, Eliza katolikoa Legebiltzarrera joan eta, besteak beste, aldaketa klimatikoaz aritu zen», nabarmendu zuen. «Latinoamerikako ia gobernu gehienek –Nikaragua, Ekuador, Mexiko, Argentina– Eliza katolikoarekin hitzarmen politikoak sinatu dituzte», gaineratu zuen.

«Gizartean polarizazioa eragiten duten gaiak ditugu, horietako bat, abortua. Mexikoko Hirian baimenduta dago, baina Eliza katolikoaren presioa gero eta nabarmenagoa da. Ospitale batzuetan, adibidez, abortatzeko asmoa dutenei jada osatutako fetuen ekografiak erakusten dizkiete iritzia alda dezaten. Edo haurdunaldiaren beste aste batean daudela esaten diete apropos, legeak ezarritako epeetatik kanpo daudela sinestarazteko. Aldi berean, hori bai, ikuspuntu aurrerakoi eta feminista dugunok ere presentzia handia dugu. Etengabeko borroka batean gaudela. Fundamentalistek aurrera egiten badute, baita guk ere. Egia da fundamentalistek diru asko eta botere dituztela, baina, zorionez, gizarte mexikarra oso anitza da», azaldu zion Garciak GAUR8ri hitzaldiaren ostean.

Hedabideei dagokionez, oro har, «kontserbadoreak» direla dio. «Sexistak, matxistak eta misoginoak dira. Etengabe mezu bera zabaltzen ari dira, hots; emakumearen berezko lekua etxea eta familiaren zaintza direla. Emakumeok autonomia eta independentzia zabalagoa eduki ahal izatea oztopatzen ari da mezu hori, baina, egia da ere, gazteek gero eta telebista gutxiago ikusten dutela eta beste komunikabide mota batzuetara jotzen dutela. Telebista kateak beraiek kezkatuta daude kontsumo ohitura aldaketa horregatik; gazteek ez dute bat egiten eskaintzen zaien programazio kontserbadore horrekin».

Hala ere, oraindik ere, telebistak gizartearengan duen eragina



nabarmena dela aitortzen du aditu mexikarrak: «Enrique Peña Nieto presidenteak telebista kateek bere irudia goraipatzeko egindako kanpainari esker irabazi zituen hauteskundeak. Telenobelak egiten zituen aktore ospetsu batekin ezkondu zen. Peña Nieto eta bere emaztearen arteko harremana telenobela bat balitz bezala aurkeztu zuten, arrosa koloreko irudia emanez».

Nola egin aurre kanpaina horiei eta fundamentalismoei? «Bada, liburu sakratuaren mezuak zabalduz. Abortuari dago-kionez, Zuzenbide Kanonikoak abortua hainbat egoeratan baimentzen du. Noiz? Emakumeak 16 urte baino gutxiago dituenengan, beldurragatik edo beharragatik abortatzean, legea urratzen dela jakin gabe abortatzean eta kalte larriren bat ekiditeko egitean. Elizaren hierarkiak salbuespen horiek ez ditu inoiz kontuan hartzen eta katolikoak diren emakume askok ez dituzte ezagutzen. 'Maitasuna dagoenengan, familia bat dago. Familia guztiak ez dira berdinak', lelopean, Jesusek osatu zuen familiaren baloreak eta etika Elizaren hierarkiarekin bat ez datozela esaten dugu. Guztiak anai-arrebak dira, ez dago aitaren irudirik. Jesus bera ez zen ezkondu eta ez zuen seme-alabarik izan, eta, familia zer den galdetuta, 'Jaungoikoaren borondatea betetzen duena' erantzun ohi zuen», nabarmentzen du.

Frantzisko aita santuak katolikoentzat «erronka» bat suposatzen duela uste du Garciak. «Batetik, ebanjeliotik gertuago dago eta fededunok aspalditik itxoi-ten genuen mezua du. Baina ziur gaude ez duela sakoneko al-daketarik egingo emakumeen eskubideei dagokionez. Diskurtsoa garrantzitsua da, baina sexu eta ugalketa eskubideen arloan ez du aldaketarik eragingo. Adi egon behar dugu, aita santuaren hitz politiek engaina ez gaitzaten. Justizia sozialarekin eta giza eskubideekin konprometitutako Eliza nahi dugu, fededunak entzuten dituen eta emakumeon erabakitze eskubidea aitortzen duena», azpimarratzen du Garciak.